

EUSKALTEGIEN TXOKOA

UDAL EUSKALTEGIA



Hernaniko bertso eskola / II-III



Mende laurden bat bertsoz bertso/ II

Maialen Lujanbio - Bertsolaria/ III
«Bertsotan gabiltzan ia gazte guztiak bertso eskolatik sortutakoak gara»



Bertso eskola: uzta berria eraiten/ II

Hernani Santiago Bidean/ IV



Mende laurden bat bertsoz bertso

Bi Lujanbio, TXIRRI-TA eta MAIALEN, bi garairen erakusle handi, bata, tradizioarena; eta, bestea, gaur egungo Hernaniko Bertso Eskola arrakastatsua-ren adibideetako bat. Bien artean, ordea, tradizioa ez da eten, izan dira zubi lana egin duten bertsolariak, ez hain ezagunak, baina ezinbestekoak. Besteak beste, Tturko, Aterpe, Garin...



Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin eta Juanjo Uria bertso eskolaren historia kontatzen.

Orain dela 25 urte hasi zen Hernanin bertso taldearen historia, gaur egun eskola ospetsua bihurtu dena. Garai hartan Amurizak eman zuen ikastaro batetik hasi ziren bertso taldearen lehenengo pausoak. Handik abiatuta jaio

zen bertso eskolaren mugimendua ere. Juanjo Uriak kontatu digunez, Langile ikastolatik deitu zioten, bertsoak ikasle artean zabaltzeko. Iñaki Zelaia eta Jose Luis Urdangarin, berriz, Urumea ikastolatik datoz, eta kontatu digute Don Manuel apaizarekin hasi zirela bertso kontuan; eta Ereñotzuko ikasto-

lan, berriz, Anatxen ardura-pean hasi zen beste talde bat. Oso argi zeukaten denek helburua ez zela bertsolariak aterratzea, helburu nagusia zela umeengan bertso zaletasuna sortzea. Langilen sortutako taldeak eta Urumean sortu zenak, batzeko beharra ikusi zuten eta hortik jaio zen gaurko Bertso Eskola 1990 urtean.

Hasiera zaila

Bertso eskolek ez zuten izan hasiera samurra. Bi iritzi zeuden. Alde batetik, bertsolari batzuek, besteak beste Lazkao Txikik, esaten zuten bertsolaria jaio egiten zela, ezin zela ikasi eskola batean. Bestalde, Amuriza eta beste batzuk bertso eskolen alde zeuden. Baina gaur egun ikus dezakegu ber-

tsolari gehienak bertso eskole-tatik ateratzen direla.

Material falta ere beste zailtasun bat izan zen. Hasieran nahikoa oztopo aurkitu zuten materialik ez zegoelako, baina gogo handiz ekin zioten lanari. Bertso zaharrak, koplak eta liburu zaharrak biltzen hasi ziren eta Euskal Herriko beste bertso eskolekin harremanetan jarri ziren materiala prestatzeko, Mikel Mendizabalek (Ikastolen Federazioko Bertsolari-tza Kordinatzaileak) lagunduta.

Bertso Taldearen izenak ere, IRAULIO PANTTALONE, bere historia badu. Bertso Taldea, frontoi atzean dauden aldageletan elkartzen zen eta erabaki zuten taldeari izen bat jartzea, jendeak bertso eskolarekin nahastu egiten baitzuen. Taldekide bakoitzak eraman behar zuen izen bat eta, azkenean, bi izen gelditu ziren, erabaki ezinik: horietako bat "Iraulio", hau da, gazteak ziren eta guztia "irauli" nahi zuten. Bestea, berriz, Panttalone, Italiako juglare ospetsu bat, bertsolariak ba omen dute-eta zerbait juglaretik. Ez ziren ados jartzen eta beraietako batek ideia bat izan zuen: bi izenak batzea. Eta handik sortu zen Iraulio Panttalone izena. ||

Bertso eskola: uzta berria ereiten

OSTIRAL arratsalde batean Bertso Eskolara joan ginen bertsoan nola ikasten duten ikustera. Kultur etxean eta Elkano kalean biltzen dira.

Hernaniko Bertso Eskolan momentu honetan sei irakasle ari dira: Arnaitz Lasarte, Estitxu Eizagirre, Amaia Otxotorena, Oier Iurramendi, Unai Gaztelumendi eta Gorka Tolosa; eta hogeita hamabi bat ikasle, hiru taldetan banatuta. Oso gazte has daiteke eta, normalean, 8 bat urte dituztela hasten dira; nahiz eta aurten badauden bi kasu berezi, lau urtekoak.

Irakasleek kontatu digutenez, ikasle zaharrenek maila batetik aurrera ez dute behar

irakaslerik, nahikoa dute, beraien artean praktikatzarekin, saiatzeko eta hobetzeko. Honela, Bertso Eskolak lortzen du afizioa mantentzea eta elkarren artean harreman berezia izatea.

Umeekin ere hitz egin genuen eta esan ziguten edozein joan daitekeela, baina bertsoak ikasteko euskaraz hitz egitea dela inportantena. Astean ordu betez joaten dira eta ariketa desberdinak egiten dituzte, esate baterako, lau errima jarri, bertsoak osatu, koplak...

Lehenago eta oraingo idoloak Batzuk joaten dira bertsoak gustatzen zaizkielako eta beste



Hurrengo txapeldunak ikasten.

batzuk, berriz, familiagatik. Gazteenek idolo pila bat dituzte, adibidez, Txirrita, Lazkao

Txiki, Maialen, Egaña...

Umeak izan arren, maila ona dute eta prestatuak dau-

de herriz herri joateko. Dagoeneko kantatu dute Goi-zuetan eta Arrasaten. ||

Maialen Lujanbio - Bertsolaria:

«Bertsotan gabiltzan ia gazte guztiak bertso eskolatik sortutakoak gara»

Maialen Lujanbio, Hernaniko bertso eskolatik ateratako bertsolari famatuari egindako elkarrizketa.

Noiztik zaude bertso munduan? Zeinekin hasi zinen?

Hamaika urterekin hasi nintzen Urumea ikastolan modu xeble batean, bertsoak idazten jakin gabe, joku bezala lagunen artean zirikatuz. Gregoriok, gure bertsotako lehen irakaslea izanik, proposatu zigun bertso eskolara sartzea. Hortik aurrera gure irakasle kontsideratzen duguna Jon Eizmendi izan da.

Zer izan da bertso eskola zuretzat?

Niretzat oso inportantea izan zen bertan bertsotarako teknika ikasi genuelako. Gaur egun bertsotan gabiltzan gazteak ia denak bertso eskolatik sortutakoak gara.

Bertsolaritza gizonen mundua izan denez, diskriminatua sentitu al zara inoiz?

Gaztetan gogorragoa izan zen neska gutxi ginelako eta mutilak beraien artean harremantzen zirelako, baina beti modu atsegin batean. Plazetan, berriz, bertsolari gehienak helduak eta nahiko paternalistak ziren. Gainera herrietara eramaten gintuzten kuriosidade bezala eta horrek eman zigun aukera gehiago kantatzeko.

Ez al da arriskutsua doinu berri bat Txapelketara eramatea?

Bai, arriskutsua da, entzuteko inkomodoa. Doinu berri bat ez dakizu non hasten den eta non bukatzen den; beraz, jendea ez da testuan fijatzen doinuan baizik. Horregatik, entzuleak nahastu egiten dira. Han ez nuen lortu testua eta doinua ondo lotzen.

Zein da zure helburua, Txapelketa Nagusia eskuratzea?

Txapelketa aspirazio bat da, baina helburua egunerokoa da, astebururo kantatzen dugu eta prozesua hobetzea



Maialen Lujanbio.

nahi dugu, artista plastikoek bezala, perfekzionatu eta koherente izan gure ideiekin.

Garai bateko bertsolariak herrikoak ziren, gaurkoak, ordea, lizentziatuak... Asko nabaritzen al da?

Lehen bertsolariek funtzio desberdina zeukaten, ez gaur egun bezain zabala, baina igual espezializatuagoa. Gainera, publikoa ere beraien modukoa zen. Orduan bat egiten zuten. Gaur egun, oihartzun handiagoa dauka, saioak egiten dira hirietan, unibertsitatean, eskolatan... edozein kontestutan. Beraz, bertsolariak lizentziatu izateak ematen dio helera edo akzesu bat beste gai batzuetara. Hala ere, gaur egun lehen bezala bertsolariak egokitzen dira entzulearengana. Bertsolaritza gizartearekin eboluzionatzen duen gauza bat da.

Nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna? Ba al daude gazteak zaletasuna dutenak?

Itxura ona dauka, zaletasun handia dago, bertso eskolan ume asko dabilta, errekonozimendua izan du eta prestigioa irabazi du.

Udal Euskaltegiko ikasleei bertsoa

Mende laurden bat bertso eskolaren sokan hara ta hona gabiltz, ta oraingo hon(e)tan euskaltegira zuek animatzekotan. Urteetan zabilzate hitzekin borrokan, beste hogeita bost baino lehenago bertsotan!

Maialen Lujanbio

Hernani Santiago bidean


Santiago bideko zatitxo bat Hernanitik pasatzen da. Markatu berria dago bidea.

ESAERA zaharrak dioen bezala "Bide guztiak Erromara daramate" eta Europatik Santiagora iristeko ere bide bat baino gehiago daude. Euskal Herritik pasatzen diren bi dira ezagunak: Kostaldekoa eta Frantziako bidea. Lehenengoa Irunen hasten da eta bigarrena, berriz, Orreagan.

Bada, hala ere, Euskal Herritik pasatzen den beste bide bat, *Barrualdeko Bidea*. Azkeneko bide horrek aukera ematen du apenas sei egunetan gure herrialdea ezagutzeko. Hori ere, Kostaldeko bidea bezala, Irunen hasten da eta leku hauek gurutzatzen ditu: Oiartzun, Hernani, Tolosa, Zegama, San Adriango tunela eta hemendik barrena Araban sartuko da. Ibilbide horrek *Frantziako Bidearekin* bat egiten du Ozkabarten, Santo Domingo de la Calzadan.

Santiago bidea egiteko Euskal Herrian hiru bide ezberdin ditugu. Hernanitik pasatzen dena Barrualdeko Bidea bezala ezagutzen da.

Antzina jendeak ezagutzen zuen bide hori ez azkarrena izateagatik, segurua eta jendetsua zelako baizik; ondo hornitua zegoen eta hilabete gogorrenetan ere nahikoa eroso zen. Orain dela bi mende protagonismoa galdu bazuen ere, orain berriro erabiltzen hasi dira, ibilbideak berde eta urre koloreko bide interesgarria izaten jarraitzen baitu. Toki batzuetan ikus daitezkeen erromatarren galzada zahar baten arrastoek erakusten digute garrantzitsua izan zela. Arrasto horiek aurkituko ditugu, besteak beste, Gipuzkoatik Arabara pasatzeko igarotzen dugun San Adriango tuneletik gertu. Pasabide hori Aizkorri eta Alzaniako mendateen artean dago, Lizarrate harkaitzaren bihotzean. San Adriango pasabidea indarrean zegoenean, bertatik erregeak, printzeak, gudaosteak, bandolero,



Portun, trenbide azpiko tunelean dago marka hau.

gaizkile, iheslari era erronesak pasatzen ziren. Barnean, etxeak, ukiulak, taberna, kapila... zeuden. Dorretxe moduan funtzionatzen zuen eta zaindari eta alkaide bat ere bazituen. Pertsonaje horietako bat Europako pertsonarik nagusia zela esaten ibiltzen zen. Izan ere, bere aurrean erregeek ere burua makurtu behar izaten zuten; ez zen gezurretan ari; Araba aldeko tunel ahoa oso altuera gutxiakoa da eta zaldiz zetorrenak txapela kendu eta burumakur pasa behar izaten zuten.

Barrualdeko Bidea

210 kilometro inguru dituen bideak sei etapa ditu Euskal Herrian eta Errioxan beste bat:

1. Irun-Andoain 28,4 km.
2. Andoain-Beasain 36,6 km.
3. Beasain-Zalduendo 34,3 km.
4. Zalduendo-Gasteiz 29,4 km.
5. Gasteiz-Argantzun 19,9 km.
6. Argantzun-Briñas 23 km.
7. Briñas-Ozkabarte edo Santo Domingo de la Calzada 25 km.

Lehenengo etapa Hernanitik pasatzen da eta herria zeharkatzeko zenbait proposamen daude.

Lehenengoa: Santiagomenditik Astigarraga herrira doa, eta handik Ergobia auzora. Ergobiako zubia pasa ondoren, ezkerretara hartu behar dugu, trenbide ondoko bidean zubi azpitik pasa (hor ikusiko duzue marka bat), eta Floridako auzora iritsiko gara. Hemen Sagastia ermita zegoen, XVIII. mendean desagertu zen, erre egin zen-eta. Hemendik Zinkoenara joango gara. Antzina Magdale-

Pasa aurretik hurrengo seinalea ikusiko duzue, eta Portu auzora iritsiko gara. Aurrera jarraitu, erreka txiki bat zeharkatu, eta eskuinera jo ondoren, Urnietarako bidea hartuko dugu.

Bigarrena: luzexeagoa, baina berdea eta aurrekoa baino politagoa. Astigarragatik aterako gara GI-131 errepidearen paraleloan doan ibilbideari jarraituz Ergobia auzorantz. Auzoko etxe batzuen atzetik pasako gara eta industrialdetik jarraituko dugu, Gurutzeta sagardotegi aurretik pasa arte. Oialume auzorantz joko dugu eta bertan dagoen zubia pasako dugu. Etxe batzuen artean pasa ondoren, errepidera itzuliko gara. Hemen bi errotanda aurkituko ditugu. Lehenengoan ezkerretarantz joko dugu, oinezko pasabidetik pasa eta bigarren errotondara iritsiko gara. Hori ere ezkerretik hartuko dugu, beste oinezko pasabidetik barrena aurrean bidegorri bat aurkitu arte. Bidegorriari jarraitu behar diogu. Gasolindegira eta gur-

pilen pabiloi batera iritsi ondoren, ezkerretarantz jo, eta laster eskuinean dagoen zubitik ibaia zeharkatuko dugu. Hernaniko lehen etxeak dira. Trenbide azpitik pasako gara, tunel batetik, eta ezkeraldera hartuko dugu Hernani erdiko geltokiraino. Eskailera tarte luze batetik igoko gara. Karkabatik hirigunean sartu, Kale Nagusian igo eta Gudarien plazara iritsiko gara. Hemendik aurrera lehenengo bideak eta bigarrenak bat egiten dute.

Lotako lekurik ez

Lo egiteko eta jateko leku dezente badaude ere, herrian aterpetxe bat falta da. Erromesek ez daukate leku egokirik lo egiteko, deskantsatzeko edo garbitzeko. Hala ere, udalak badu proiektu bat: garai bateko udal jangela, hau da, kiroldegi ondokoa, egokitu nahi dute aterpe bat egiteko. Izan ere, orain dela urte batzuk udal jangela une batean sortutako beharrei erantzuteko erabili zuten aterpe moduan. II



Egileak